

MAIATZAREN 28AN, EMAN BOTOA HERRI BIZI BATEN ALDE!

Udal
Hauteskundeak
2023

GABIRIA
HAUTESLE
ELKARTEA

Gabiria



- 1- Endika Igarzabal Murua,
- 2- Iratxe Irigoien Aranburu,
- 3- Iñigo Igartzabal Bidegain,
- 4- Felix Maiz Egiguren,
- 5- Maialen Igarzabal Murua,
- 6- Iker Arratibel Aranburu,
- 7- Joseba Iztueta Dorronsoro,
- 8- Miren Deba Aranburu,
- 9- Andrea Aldazabal Merino,
- 10- Jabier Garcia Andoain.

SARRERA

Maiatzaren 28an izango diren udal hauteskunderi begira, ondorengo orrietan jaso dira datozen lau urteotan Gabiriaren oraina eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko asmoak. Aurrekoetan egindakoak kontuan izanda, **parte hartzean eta orekan oinarritutako herri txiki euskalduna** izaten jarraitzeko ekintzak eta horiek gauzatzeko moduen inguruko proposamena prestatu dugu. Azken bi legegintzaldietan egin den bezala, aurten ere zerrenda bakarreko taldea elkartu gara, herriaren **nortasunean** dagoen elkarlana ezinbestekoa iruditzen baitzaigu iritzi ezberdinak kontuan izan eta guztiok batera gabiriarron ongizatea bilatzeko lanean jarduteko.

2011tik herrian martxan dauzkagun Udal-Batzordeak izan dira urte hauetan guztietan udalaren jardunaren ardatza, eta datozen lau urteotan ere hala izaten jarraitzea da gure asmoa. Lantalde horietan, ondorengo orrietan zehaztuko ditugun helburuak garatzeko beharrezko ekintzak eta proiektuak zehaztu eta martxan jarriko dira; horretarako, herritarron inplikazioa eta auzolana behar-beharrezkoak izango dira, proiektuek guztion interesak izan ditzaten kontuan. Dauzkagun bost batzordeetan, gureak herri **iraunkorra, berritzailea, berdinzalea** eta **aktiboa** izaten jarrai dezan lan egingo dugu, **kultura** eta **hizkuntza** indartuz.

Eskuorri honetan ideia guztiak txertatzea ezinezkoa bazaigu ere, ondorengo orrietan daukazue 2023-2027 epealdirako proposatutako lan-ildo nagusiak.

EUSKARA ETA KULTURA

Euskara eta kultura batzordea ezinbestekoa da Gabiriari bizi-bizi eusten jarraitzeko. Lau urte hauetan, aurreko legegintzaldiei jarraipena emanez, hainbat ikastaro, hitzaldi eta ikuskizun antolatu ditugu. Horiez gain, Euskal Herrian maila nazionalean antolatzen diren hainbat ekimenekin bat egin dugu, eta datozen lau urteotan ere bide horretatik jarraitzea da asmoa.

Gabiria bezalako herri txikietan euskararen ezagutza eta erabilerari eusteak daukan garrantziaren jakitun gara; eta bide horretan, lanean jarraitzearen aldeko apustua egingo dugu oraingoan ere. Horretarako, gurasoekin egindako saioei jarraipena emango zaie, eta herrian euskara ikasteko taldea sortzen saiatuko gara. Hori ezinezkoa denean, herritarrak euskara ikastera bultzatzeko dirulaguntzek martxan jarraituko dute. Horretaz aparte, UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko) kide gara 2016tik, eta horretan sakontzea ere gure ardatzetako bat izango da. Izan ere, herrian nahiz udal barruko funtzionamenduan eragin nahi da.

Azken urteotan egin ez badira ere, hartu-eman ikastaroak berreskuratu nahi ditugu. Saio horietan, belaunaldi arteko transmisioa eta sormena lantzea izango dira helburu nagusiak, herritarren arteko ezagutza eta jakinduria trukatzeko eta balioan jartzea garrantzitsua iruditzen baitzaigu. Gainera, indarra hartu duen Irakurle txokoari eutsi nahi diogu, eta antolatutako ekintzetan gazteekin elkarlanean arituz euren interesak asetzen saiatu.

Ekintza eta proiektu guztietarako, herriko kultur elkarte eta talde guztiei egingo diegu gonbitea; uste baitugu, gurea bezalako herri txiki batean, nor bere aldetik jardun beharrean, denok mahai berean elkartzeak elkarlana eta komunikazioa erraztuko dituela.



OBRAK ETA HIRIGINTZA

Frontoi Azpi inguruko eskoilera mugitu eta harri handi bat erori denez, esfortzu pertsonal eta ekonomiko handia eskatuko duen gaia izango da horren konponketa, eta udalaren aldetik beharrezkoak diren baliabide guztiak bideratuko dira egoera konpondu eta ardurak argitzeko. Auzokideekin batera oso gertutik jarraituko den gaia izango da.

Arroa eta Alkain Txiki inguruari eman zaion antolaketa berriarekin, lursail horietan egin daitezkeen etxebizitzak aztertu eta Alkain Txikiri berari zein erabilera eman erabakitzea izango da helburua. Hainbat arau subsidiarioran aldaketak egin beharra dago, baserrietan bi bizitza baino gehiago egin ahal izateko, besteak beste.


Ostatuan egokitzapenak eginda, teilatuari udaberrian amaiera eman eta goiko pisuan geratuko den lokalaren erabilera finkatzea izango dugu helburu.

Troiako urtegiari dagokionez, Asfaltos Urretxuk aurkeztutako “errekuperazio” proiektuari bi aldiz jarri zaio helegitea, ingurugiroarentzat eta herriarentzat bete beharreko baldintzekin bat ez datorrela iritzita. Gai horri ere jarraipena egingo zaio irtenbide egokia aurkitu arte.

Auzo eta baserriei behar bezalako arreta eskaintzea izango da beste helburu bat, eta egin beharreko obrak herri guztira zabalduko dira. Auzolanak bultzatzen jarraituko dugu, iruditzen baitzaigu herri parte-hartzaile baten gakoa direla.

Herrigunean beharrezkoa ikusten dugu futbol-zelai ingurua berrantolatzea, autoen eta futbol zelaiaren erabiltzaileen bizikidetzaren bermatuz.

Landa eremuko herri bat izaki, natura eta ingurugiroari garrantzi handia emango zaio. Horregatik, herritarren artean energia berriztagarriak sustatzen jarraitzea izango da helburua; horretarako, azterketa global bat egitea da asmoa, kontsumoa jaitsi eta udal eraikinetan kontsumitutzen den gehiena berriztagarria izan dadin. Herriko baserriaren lanari ere balioa ematen jarraituko dugu.




ONGIZATEA

Datozen lau urteotarako hainbat ekintzarekin jarraitzea eta lehendik hasitakoei bultzada eta jarraipena ematea da helburua. Orain arteko osasun zerbitzua mantendu eta herritarren beharretara egokitzeko ahalegina egiten jarraituko dugu. Udalak gizarte zerbitzuetan dituen baliabideak zein diren jakinarazten eta areagotzen ere saiatuko gara (emakumeenganako bortizkeria edo diskriminazioaren inguruan egindako protokoloa, adinekoen laguntzen inguruko aholkularitza zerbitzuak, adinekoek ostegunero dituzten saioak...).

Gabiriako gazteria aktiboa ere oso garrantzitsua denez, horri eusteko beraien parte hartzea bultzatu eta lankidetzan mantendu nahi da. Gainera, herri berdinzalea dugunez helburu, herriko Agirin talde feministarekin lankidetzan aritzeaz gain, genero ikuspegia kontuan hartu eta berdintasuna bermatzea eta zaintzea izango ditugu helburu, bai antolatzen ditugun ekintzetan, bai batzorde guztietan ere.

Herrian dugun etxebizitza arazoari irtenbide bat bilatu asmoz, hutsik dauden etxe eta baserri jabeen eta erosi edo alokatzeko prest egongo liratekeen arteko zubi lanak nola egin landuko dugu, besteak beste.

Azkenik, azken urteetan bezalaxe, hondakinen kopurua murriztearen, berrerabilpenaren eta birziklatzearen alde lanean jarraituko dugu; martxan dagoen autobus zerbitzuari ere jarraipena egingo zaio; haurtzaindegia mantentzeko lanean jarraituko dugu; eta, orain arte bezala, Gaboria Goi Tentsioko Linearik eta Fracking-ik gabekoa izan dadin lanean gogor jarraituko da.



KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENA

Batzorde honi bultzada handia eman zaio azken legegintzaldian ere, eta ildo beretik jarraitzeko asmoa dago. Batzordeak bi atal garrantzitsu ditu: komunikazioa eta garapena.

Komunikazioari dagokionez, webgunea lantzen eta panel informatiboak elikatzen jarraituko dugu, herrian gertatzen den oro herritarrei iristarazteko; horretarako, bandoak banatzen zein sare sozialen bidez informatzen ere jarraituko dugu. Baina aurrez aurreko nahiz papereko kanalak ere oso garrantzitsuak direla uste dugu, eta urteroko “Herri Batzarra” eta “Gabiriagiri” berripaperarekin jarraitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Eskura dauzkagun kanal guztiak baliatuko ditugu Udalaren jarduna erabat gardena izan dadin. Hala eta guztiz ere, guk informazioa zabaltzeaz gain, jaso ere egin nahi dugu, eta batzorde hau informazioa jasotzeko foroa izan daiteke.

Garapenari dagokionez, Gabiria 2030 programan zehaztutako helburuak betetzea izango da helburu. Horien artean aipa daitezke auzoetako eta baserrietako herritarrekin harremanak sendotzea eta euren beharrak asetzea, gazteengana hurbiltzeko foro bat sortzea, eskolarekin elkarlanean jarraitzea, herriko eragileei eta ekintzaileei ikusgarritasuna eta laguntza ematea, baita herriko interesguneak eta ondarea balioan eta begibistan jartzea ere.

Aipaturikoak landu eta egin bitartean, batzordeen arteko komunikazioaren arduraren hartuz, akuilu lanetan ere jarraituko dugu.



FINANTZAK


Finantza arloko helburu nagusia gardentasuna izango da, hau da, gainerako batzordeetan xehetasun denak erakustea. Urteko aurrekontua Herri Batzarrean lantzen jarraituko da.

Arlo honetan, tamalez, nahi baino aukera gutxiago izaten dira diruarekin zer egin erabakitzeko.

Udalarena zen etxebizitza saldu izanak likidezia eman digu, eta horri esker, hainbat dirulaguntza garrantzitsutan sartzeko aukera izan da azken legealdian, likidezia hori gabe lortu ezingo liratekeenak, Ostatuko obrenak kasu. Gainera, Alkain Txiki eta inguruko lurretan inbertitu da eta udalak lurren jabetza lortzen inbertitutakoa, etxe horiek saldu ahala berreskuratuko luke, irabazi asmorik gabe. Beraz, dinamika horrekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Aipatzekoa da 2022. urtean amaitu zuela udalak futbol-zelaiko obrari zegokion kredituaren itzulera; beraz, horrek ere aurrerantzean aukera gehiago emango dizkigu.

Frontoi Azpiko eskoileraren konponketaren aurrekontu orokorra egin da eta zenbakiak ez dira batere politak; miloi bat eurotik gorako kostua erakusten dute eta. Udalaren lehenengo helburuetako bat, obra lehenbailehen konpontzeaz gain, ardurak argitzea da. Hala, hasita gaude hainbat erakunderi laguntza eske guztion intereserako ona den irtenbidea aurkitzeko. Dena den, gai horren inpaktu ekonomikoak erabat baldintzatuko ditu programako gainerako puntu gehienak.



**Entzun zazu Gabiri
gure aldarria,
egitekoz beteta
dakargu orria,
taldea sortu dugu
ikaragarria,
eraiki asmoz denok
nahi dugun herria.**

